

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Zubiko Kurajo, Maestro Elorza eta Jose Matia kaleak urbanizatzeko (III. fasea: Zubiko Kurajo) obra arrunten zuzendaritzaren eta laguntza teknikoaren kontratazio-espeditentea**

2016ko irailaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzitako Akordio bidez Zubiko Kurajo, Maestro Elorza eta Jose Matia kaleak urbanizatzeko (III. fasea: Zubiko Kurajo) obra arrunten zuzendaritzaren eta laguntza teknikoaren kontratazio-espeditentea onartu da.

1. Entitate esleitzaila:

a) Erakundea: Laudioko Udala.

b) Espeditentea izapidetzen ari den bulegoa: Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune arloa.

c) Espediente-zenbakia: OS - 145/2016.

2. Kontratuaren helburua:

a) Helburua: zuzendaritza eta laguntza teknikoa.

b) Burutzapen lekua: Laudio.

c) Burutzapen epea: Obra-lanaren zuzendaritza fakultatiboa eta laguntza teknikoa eskaintzeko kontratuak edukiko duen iraupena izango da obra-lana esleitzen denetik hasi eta azken amaierako txostena eskaintzen den egunera arte, obren berme epea bukatuta, kontratua sinatu zen datatik aurrera zenbatuta eta SPKLTBko 203. artikuluan aurreikusitako epeei buruz xedatutakoarekin bat. Informazio-datu gisa, proiektuko dokumentuaren arabera, egikaritzeko epea ezarri da, gehienez ere, sei (6) hilabetetan.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapideak: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Forma: esleitzeko irizpide anitz daude.

4. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: oinarria 36.000,00 euro, gehi BEZagatikoko ehuneko 21ari dagozkion 7.560,00 euro, guztira 43.560,00 euro egiten dutela:

5. Bermeak:

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: kontratuaren aurrekontuko ehuneko 5a (BEZa kenduta).

6. Espeditentea aztertu eta informazioa jaso: Laudio, Herriko Etxea, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune arloan, Herriko Plaza, 8-3. solairua, telefonoa: 944034860, iragarki hau ALHAOn argitaratuta agertzen den hurrengo lanegunetik hasita proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

7. Dokumentazioa non lortu: Laudioko Udalean, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune arloan. Herriko plaza 8, 3. solairua. Telefonoa: 944034860.

8. Kontratistaren betebeharrak zehatzak: ez dira eskatzen.

9. Eskaintzen aurkezpena:

a) Aurkezpen epea: hogeita sei (26) egun natural iragarkia ALHAOn argitaratuta agertzen den hurrengo egunetik hasita.

b) Posta bidalketa: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioetako Kontratazio Erregelamenduko 80,4. artikuluan ezarritako baldintzekin bat.

c) Aurkeztu behar den dokumentazioa: baldintza pleguaren arabera.

d) Non aurkeztu eskaintzak, Lekua: Herriko Etxeko Sarrera Erregistroan, Herriko Plaza 8 - behea. Posta Kodea 01400, Audio, (Araba) eskaintzak aurkezteko seinalatutako azken eguneko 13:00ak arte. Dokumentazioa aurkezteagatiko tasak ordaindu behar dira. Kontratazio-mahaiak atzera botako du edo ez du onartuko Sarrera Erregistroan aurkeztutako dokumentazioa, aurkezpena egiteagatiko ordainketa egin barik badauka.

10. Noiz zabaldu eskaintzak: deialdia Audioko Udaleko kontratzailearen profilean argitaratuko da.

11. Proposamen ereduak: lizitatzailerak aurkeztu beharko du eskaintza baldintza pleguan aurreikusitako proposamen ereduak erabiliz eta pleguan bertan adierazten diren dokumentuekin batera.

12. Iragarkiak eta eskaintzak aurkezteagatiko gastuak: eskaintzak aurkezten dituztenek eurek ordaindu behar dituzte dokumentazioa barruan daramaten itxitako gutun-azal eta eskaintzak aurkezteagatik udal-ordenantzatik eratorritako tasak. Bestalde, esleipendunak ordaindu beharko ditu eskaintza iragarkien gastuak.

13. Kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonak: kontratazio organoaren erabakiz izendatutakoak.

Laudio, 2016ko irailaren 20a

*Alkate-udalburua*  
**JON IÑAKI URKIXO ORUETA**